



Mundubat

20

años de solidaridad
urte elkartasunean
1988 - 2008



**Giza Eskubideetarako
perspektiba eta
erronka berriak**

Aurkibidea



03

“Giza Eskubideak eta Ondasun Bateratuak”, “Gizadiaren eskubideak eta ondasun bateratuak, kapitalismoaren eta bere krisiaren aurrean” laneko testu-zatia.
Carlos Tablada eta José Ángel Pérez García



07

“Giza eskubideen sustapen unibertsala”, Raji Sourani



Carlos Tablada Pérez (Habana 1948).

Soziologian eta Filosofian lizentziatua eta Ekonomia Zientzietan doktoratua. Habanako Munduko Ekonomiari buruzko Ikerketa Zentroko (CIEM) ikertzaile titularra. Kubako Idazle eta Artisten Batasun Nazionaleko kidea (UNEAC), Alternatiben Munduko Foroko Zaba-lkude eta Argitalpenetako idazkaria (FMA), Ruth Casa Editorialeko zuzendari nagusia, Ruth internacional a.s.b.l. Belgicako idazkari eragilea eta Habanako Unibertsitateko irakasle titular adjuntua. Irakasle gonbidatu moduan, 33 herrialdetako 155 unibertsitate-tan lan egin du. Belgikako Bruselako Unibertsitate Libreko Service d'information et de formation Amérique Latineko (SEDIF) Panorámica Latinoamericana aldizkariko argitalpen-kontseiluko kidea. Zenbait liburu eta hamarnaka artikulua eta saiakera argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan. 1987an, Ameriketako Etxea Saria irabazi zuen El pensamiento económico de Ernesto Che Guevara liburuari esker. Liburu horren 33 edizio eta bi berrinprimaketa egin dira 14 herrialdetan eta 9 hizkuntzatan. Beraz, milioi erditik gora ale saldu ditu gaur arte.

José Ángel Pérez García (Kuba 1953).

Kubako Habanako Munduko Ekonomiari buruzko Ikerketa Zentroko ikertzailea. Kubako Habanako Enrique José Varona Goi Institutu Pedagogikoko graduatua Historiako irakasle-ikasketetan (1974) eta Ekonomia Politikan lizentziatua (1980). Nazioarteko Harreman Politikoetako eta Nazioarteko Harreman Ekonomikoetako masterra "Raúl Roa García" Nazioarteko Harremanen Goi Institutuan (Habana, 2002 eta 2004). Habanako Unibertsitateko eta Kubako "Raúl Roa García" Nazioarteko Harremanen Goi Institutuko Ekonomia Politikoko irakaslea. Autorekidea izan da 5 liburutan: Cuba, economía en período especial (Editora Política, 1996); La economía mundial en los últimos veinte años (Gizarte Zientzien argitaletxea, Kuba, 2002); Tendencias actuales de la economía mundial (Pueblo y Educación argitaletxea, 2009); eta ALCA proyecto de anexión (Editorial Política, 2007). Era berean, honako liburu hauek idatzi ditu: América Latina: del ocaso del neoliberalismo al ALBA de los pueblos (Editorial CORPEIS, Kolonbia, 2008) eta América Latina. Resistencias y Alternativas (baterako edizioa: Ruth argitaletxea eta Venezuelako El Perro y La Rana argitaletxea, 2009). 199an, Kubako Zientzien Akademiako saria jaso zuen, honako proiektu honengatik: "Cuba, capitalismo o socialismo en los albores del nuevo milenio".

Giza eskubideak eta ondasun bateratuak

"Lurra betierekoa izan daiteke giza bizirik gabe,
baina giza bihiak ez du Ama Lurra barik aurrera egiterik"

Evo Morales

Giza eskubideak eta ondasun bateratuak

Giza eskubideen eta ondasun bateratuen kontzeptualizazioan, gizakien aniztasuna, kultura aniztasuna eta bi arloetan lortutako garapenak islatzen dira.

Giza eskubideak gizaki guztiek berez dituzten ahalmenak direla esan daiteke. Izan ere, gizakien izaeraren eta bizitza duinaren premiaren ondorioz sortzen dira. Norberak gizakia izateagatik dituen ahalmenak, askatasunak eta aldarrikapenak dira (NBE, 2005). Hori dela eta, besterenezinak dira, hau da, inork ezin dio inondik inora gizaki bati haren eskubideak kendu.

Honelakoxeak dira giza eskubideak:	
Historikoak	Lotura estu-estua dute errealitate historiko, politiko eta sozialarekin.
Besterenezinak	Ez dago eskubideen titularrik aldatzerik. Beraz, ez dago eskubideak besterentzerik.
Preskribaezinak	Iraunkorrak direnez, ezin dira urteen joan-eto-rrian desagertu edo ezin dute onespena galdu.
Unibertsalak	Guztionak dira, inolako bereizkeriarik gabe.
Banaezinak	Guztiak garrantzitsuak direnez, ezin dira banatu.
Elkarren menpekoak	Giza eskubide guztiak egituratuta daude.
Dinamikoak	Etengabe bilakatzen dira, aldagarriak dira.
Progresiboak	Aurrera egiteko joera dute, inoiz ez dute atzera egiten edo ez dira ezeztatzen, babestutako edukiari eta euren betearazpenerako eraginkortasun zein prozedurari dagokienez.
ITURRIA: Nazio Batuak.	

1948ko abenduaren 10ean onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibert-salak 30 artikulua ditu, eta, bertan, munduko gerraren ondorioak eta une hartan munduko segurtasunaren zein bakearen inguruan oro har zeuden zalantzak islatzen dira. Hori dela eta, funtseko agiri horretan, gizakien eta nazioen arteko ulermen-asmoak agertzen dira, bakeari eta giza garapenari begira.

Adierazpen hori aurrerapausoa izan zen, kapitalaren interesen adierazgarri zela ahaztu gabe. Izan ere, ez zituen hegoaldeko herrien kulturak kontuan hartu, gehienak iparraldeko potentzietako koloniak edo neokoloniak zirelako.

Giza eskubideak elkarren menpekoak eta banaezinak diren arren, batzuk oinarritzko betekizunak dira; esate baterako, askatasunerako eskubidea, arraza, sinesmena, adina, sexua, etnia eta generoa edozein dela ere (1. eta 2. artikulua); bizitzarako eta segurtasunerako eskubidea (3. artikulua); nortasun juridikoaren onespina (6. artikulua); legearen aurreko berdintasunerako eskubidea (7. artikulua); askatasunez zirkulatzeko eskubidea (13. artikulua); pentsatzeko, iritzia emateko eta batzartzeko askatasunerako eskubidea (18., 19. eta 20. artikulua); lanerako eta atsedenerako eskubidea (24. artikulua); bizi-maila egokirako eskubidea, norberaren eta familiaren osasuna eta ongizatea eta, batez ere, elikadura, jantziak, etxebizitza, laguntza medikoa eta beharrezko gizarte-zerbitzuak bermatzeko (25. artikulua); eta inolako bereizkeriarik gabeko hezkuntzarako eskubidea (26. artikulua).

Oraintsuago, ingurumen-krisiaren eta naturaren ahuleziaren ondorioz sortutako presioaren ostean, beste era batera azaldu daitezke, hau da, naturaren bezeko eskubideak, gizakiek ez dugulako eurak barik bizitzerik.

Nazio Batuen 64. Batzar Nagusian (2009ko abuztuan), zenbait presidentek eskubide hori eskatu dute, eta, euren artean, Evo Morales presidente boliviarrak izan da aitzindaria, bere jatorri indigenaren eta Ama Lurrarekin (Pachamama) hartu duen konpromisoaren arabera. Hori dela eta, Ama Lurraren Munduko Herroi izendatu dute.

Modu berean, ondasun bateratuen (OB) tratamendua ere bada anitza, eta bat dator funtsean (bateratasunean). Batzuetan, autoreak osagarriak dira euren artean; eta beste batzuetan, kontrajarriak.

Kontzeptu ugari horietan, ondasun bateratuak giza erkidegoen aberastasun kolektibotzat, gizadiaren ondareztat hartzen dira: airea, ura, energia, errepi-deak, trenbideak, portuak, aireportuak, osasuna, jakitateak, jakintza, hezkuntza, basoak, "kapital" biotikoa eta segurtasuna (Petrella, 2009).

Ez dago ondasun bateraturik gabeko gizarterik, eta erkidegoko kideek euren jabeak eta erantzuleak direla sentitzen dute. Baldintza hori barik, ez dago elkarrekin bizitzerik, ez justizia sozialik, ez demokraziarik. Segurtasun eta ongizate kolektiboak begira, ezinbestekoa da ondasun bateratuak egotea (nahiz eta nahikoak izan ez).

Orain arte, ondasun bateratu publikoak bi ezaugarri nagusiren bidez azaldu dira: ez-bazterketa (ondasuna bateratua/publikoa da, inori kendu ezin zaiolako; esate baterako, eskola batera doan ikasle batek ez dio beste bati bertara joatea eragozten, baina nik ondasun pribatua erosten badut, etxea, esaterako, beste batzuek ez dute ondasun horren gaineko jabetzarik, erabaki-ahalmenik eta erabilera-botererik edukiko) eta ez-aurkakotasuna (ez dago gainerakoekin zertan lehiatzerik, ondasuna eskuratzeko, baina ondasun edo zerbitzu baten jabetza pribatua lortzeko, ordea, lehiatu egin beharra dago) (Petrella, 2009).

Zerrenda agortzeko asmorik gabe, honako hauek izan beharko liriteke ondasun publiko orokorrak: airea; uraren zikloan parte hartzen duten gorputz hidriko guztien multzotzat hartutako ura eta, talde horretan, ozeanoak; espazioa eta espazio estralurtarra; basoak, planetako mikrobio, landare eta animalien espezieen %90 baino gehiago bertan bizi direlako; planetako klima; segurtasuna, munduko kriminaltasun-modu berrien eta zaharren aurkako borrokaren zentzuan (armen zein drogen trafikoa, antolatutako ezkutuko immigrazioa, paradisu fiskal ugariak...); egonkortasun finantzarioa; energia, nazioarteko baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien ustiapenari dagokionez; jakintza, planetako kapital biotikoari eta bertako aintzasunari dagokienez, batez ere; informazioa eta komunikazioa; eta bakea.

Erraz ulertzeko modukoa denez, ondasun bateratuei buruzko azalpen laburra funtzionala bada ere, egia esan, irizpide gehiagoren arabera azaldu ohi da zer den ondasun bateratua. Hona hemen irizpide horiek:

- 1) Funtsezkoak eta ordezkazekin dira banan-banako eta taldekako bizitzarako, denboran eta espazioan dauden sistema sozialak edonolakoak direla ere.
- 2) Giza eta gizarte eskubideen arlokoak dira. Ondasun bateratuak eta giza eskubideak banaezintasunez lotuta daude. Ondasun bateratu publikoaren balioa eta erabilgarritasuna azaltzeko parametroa bizia da, bizitzarako eskubidea eta ez bere erabilgarritasun eta irigarritasunera lotutako kostua (Petrella, 2009). Ez dira banan-banako (edo taldekako) premiei aurre egiteko ondasunak eta zerbitzuak, bizi kalitate eta maila

orokorrean zeresana duten ondasunak baizik. Beraz, aldagarriak dira, eta euren irisgarritasun zein merkataritza-erabilgarritasunagatik kostuaren eraginpean daude.

- 3) Erantzukizun eta jabetza kolektiboak. Herritar guztien ordezkaria denez, estatua ondasun bateratuen arduraduna da eta izan behar da, eta herritarrak euren jabe solidarioak dira estatuaren eta lurraldeko (tokian tokiko, eskualdeko...) beste talde batzuen bitartez (Petrella, 2009).
- 4) Subjektu publikoen ardurapeko jabetza, arauketa, gobernu/kudeaketa eta kontrolerako eginkizunak kontuan hartu behar dira ezinbestean. Izan ere, honako hauexen jabetzaren izaera publikoa berrestea da helburua: ondasunak (ura, basoa, landareak, iturri energetikoak...), azpiegiturak (sare hidrikoak, energetikoak, garraio-sareak eta informazio zein komunikazio sareak) eta kasuan kasuko zerbitzuen kudeaketa. Ondasun bateratu publikoaren funtzioa erkidegoaren interes kolektiboaren "zerbitzura" egotea da, bai eta eskubideen arloan jardutea ere. Beraz, bateraezintasun zuzena dago interes publikoaren eta interes pribatuen subjektu eramaileen ardurapeko kudeaketaren artean (Petrella, 2009).
- 5) Herritarrek, zuzenean eta zeharka, ondasun bateratuen/publikoen gobernuan parte hartu behar dute. Demokrazia arrotza da kapital pribatuko gizartearen funtzionamenduari begira. Akziodun "sozietate anonimoan" ez dago demokraziarik ezartzerik (Petrella, 2009).

Tomales Bay Instituteren esanetan, ondasun bateratuak "multzoan heredatzen dugun guztiaren batura dira, eta inolako murrizketarik gabe igorri behar dizkiegu geure ondorengoei" (TBI, 2008). Alemaniako Heinrich Böll Fundazioko Silke Heifricen ustez, "ondasun bateratuak geure herentzia kolektiboa direnez, guztionak dira" (Heifric, 2008).

Ondasun bateratuen artean, naturako elementu guztiak daudela esan dezakegu; esate baterako, ura; airea; landare, animalia eta gizaki guztien informazio genetikoa; mendeetan metatutako jakintza; ideiak; naturaren biodibertsitatea; atmosfera; zerua; isiltasuna; eta uhin elektromagnetikoen espektroa.

Bestetik, TBIk argitaratutako Para entender los comunes laneko autoreak adierazi duenez, "bateratuak, aktibo bateratuak, jabetza bateratua eta aberastasun bateratua" terminoak kontzeptu bera dira neurri batean, kontzeptu-ñabardura desberdinak dituzten arren (TBI, 2008).

Ondasun publikoekin lotu ohi diren ondasun bateratuei buruzko diskurtsoak gaur egungo joerari eutsi zion, 1968an AEBetako Science aldizkarian Kaliforniako Giza Ekologiako irakasle emeritua den Garret Hardinek idatzitako artikulua argitaratu zenean. Era berean, La tragedia de los comunes liburua argitaratu du, eta, batez ere, baliabide naturalen narriadura eta ustiapena ditu hizpide (Hardin, 2008).

Lurreko aberastasunak ez dira baliabide naturalak, ondasun bateratuak baizik. Baliabide naturalak direla esatea jabetzeko lehen modua da hizkuntzari begira (Pardo, 2008).

Ondasun bateratuen kontzeptuari buruzko dimentsio juridiko batek gizon eta emakume guztien erabilera eta gozamenerako diren ondasunak aipatzen ditu. Beraz, ezin da esan pertsona bakar batenak direnik. Zuzenbide Zibilean, ondasun-erkidegoko osagaiak ere badira, eta zenbait lagunenak dira pro indiviso.

XX. mendean, espazioaz jabetzeko prozesua garatu da, eta, aldi berean, lurreko baliabideez jabetzeko prozesua ere izan da. Lur planetan, gero eta azalera handiagoa pribatizatzen ari direnez, ez da herri-erabilerakoa (Ataque BC, 2003).

XX. mendean eta XXI. mendean igarotako epealdian, ondasun bateratuak liberalismo kapitalistako biktimak izan dira, bete-betean eraso egin die-eta. horrez gain, ustiapen eta metaketarako beste egikera kapitalista batzuk ere garatu direnez eta joan den mendeko hirurogeiko hamarkadatik krisiak elkarren segidakoak direnez, ondorio larriak sortu dira: ingurumen-krisia, gosea, langabezia, lanaren kalitatearen narriadura, habitataren arazoak eta segurtasunik eza, besteak beste.

Giza eskubideen sustapen unibertsala: Espainia eta EBko Presidentetza

Raji Sourani, Giza Eskubideen Zentro Palestinarreko zuzendaria

Gaur, Europar Batasunak giza eskubideen sustapenean eta babesean duen zeresanaz hitz egin nahi nuke. Oso gai garrantzitsua da, Espainiak EBko Presidentetza hartuko duelako bere gain. Nolanahi ere, gai hau eraginkortasunez jorratu nahi badugu, oinarritzko zenbait galdera egin behar dizkiogu geure buruari.

Gaur egun, giza eskubideak puntu erabakigarrian daude. Gure munduko errealitatea hartu behar dugu kontuan, etorkizunean errealitate hori nola garatu nahi dugun jakiteko. Geure buruari galdetu behar diogu gure gobernuak gure printzipioen ordezkaria den eta gure mesederako nahiz gure izenean jarduten duen.

Egia esan, giza eskubideak inoizkorik sendoen daude historian. Oinarritzko eskubide unibertsal moduan onartu dituzte, eta une oro ezartzen zaizkie gizabanako guztiei. Funtsezko tresna dira justiziaren aldeko borrokan, eta, zorionez, iritzi publikoak zein politikariek erreferentziatzat hartzen dituzte. Edonola ere, giza eskubideak lengoaia erkide bihurtu badira ere, hitzok egia bihurtzean arazoak sortzen dira, eta errealitate gordinak agerian geratzen dira. Gure liderrek giza eskubideez hitz egiten dute, baina euren egintzek errealitate desberdina jartzen dute agerian.

Gaur egun, garai kolonialetan bezala, munduko eremu zabal asko daude bote-retsuen menpean, estatu horien erabakien pentzura, inolako ahots eta eskubiderik gabe. Hori dela eta, premiazko galderak egin behar dira nazioarteko justiziari eta giza eskubideen ezargarritasunari buruz. Hori guztiori ager-agerian jartzen da Obama presidentearen jarrera publikoan eta diskurtsoan (irmotasunez berresten dituelako giza eskubideak eta legearen nagusitasuna) eta bere administrazioaren egintzen aldi bereko hipokresian. Zer ondorio atera daitezke arlo horretatik? Erantzun kezkarriek azpimarratu egiten dute gai horren garrantzia premiazkoa dela. Justizia, giza eskubideak eta legearen nagusitasuna berdintasunez jarri behar dira abian. Legearen nagusitasuna ez da erromatarren antzinako ideala, horren arabera justizia ugazabentzat zelako eta ez esklaboentzat. Giza eskubideak unibertsalak dira. Gure eskubideak dira eta ez dago amore

ematerik. Funtsezkoa da munduko liderrei erantzukizunak eskatzea, euren hipokresia agerian uztea eta benetako justizia unibertsalaren alde lan egitea.

2010eko urtarrilaren 1ean, Espainiak Europar Batasuneko Presidentetza hartuko du bere gain. Horren ondorioz, botere, erantzukizun eta eragin handia edukiko du. Funtsezkoa da Europak eta Espainiak aukera hori onartzea, giza eskubideen sustapenean eta babesean duten jarrera berresteko. Europar Batasunaren bidez, kontinente honek aurrerapen itzelak egin ditu giza eskubideen arloan. Europako herritarrek inoizkorik babes handiena dute, euren oinarritzko eskubideak urratu, hautsi edo mehatxatzen badituzte. Izan ere, konponbide judizial eraginkorrerako aukera dute auzitegi nazionaletan nahiz Giza Eskubideen Europako Auzitegian. Lege-babes hori ezinbestekoa, funtsezkoa da. Hain zuzen ere, mundu guztiak onartzen du giza eskubideak eta legearen nagusitasuna betearazi egin behar direla, nabariak izatekotan.

Nolanahi ere, egia tristea ere bada barne-aurrerapen hori EBko kanpo-politikan islatu ez dela. Nazioartean, oraindik ere interes politikoak nagusi dira EBren ekintzetan. Giza eskubideak ezarri eta gaika betearazten dira. Nahiz eta EBk bere kanpo-politikaren bitartez giza eskubideen aurrerapenari begira ekarpen handiak egin dituen, oraindik ere politika horretan interes politikoak dira nagusi. EBren eta Israelen arteko harremanak dira pentsaera politiko horren adierazgarri. EBk bete-betean lan egin zuen, Goldstone Txostenari buruzko ebazpena zapuzteko (bertan adierazitakoaren arabera, Gazako Gerrako ekintzen erantzulea da Israel). Gaur egun, gainera, EBren eta Israelen arteko Elkarketa Hitzarmenaren hobekuntza negoziatzen ari da, hau da, Israeli ordain finantzario handi-handiak ematen dizkion itun ekonomikoa. Ekintza horri ekin diote, nahiz eta ondo baino hobeto dokumentatuta egon Israelek oinarritzko giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren oinarritzko printzipioak behin eta berriro urratzen dituela. Israel, hain zuzen ere, giza eskubideen urraketa, gerrako krimen eta gizadiaren aurkako krimen askoren erantzulea da, nahiz eta EBk Israeli inoiz inolako erantzukizunik eskatu ez dion. EBk arlo horretan garatutako ekintzek EBren lege-betebeharrak urratzen dituzte. Europar Batasunaren Ituneko 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, EBk Kanpo Politikan eta Segurtasun Erkidean

dituen betebeharetako bat demokrazia eta legearen nagusitasuna garatzea eta sendotzea da, bai eta giza eskubideak zein oinarritzko askatasunak errespetatzea ere. Europako Erkidegoa Ezartzeko Ituneko 181. artikuluan baieztatzen denez, hirugarren herrialdeekin garatutako lankidetzak ekonomikoak "demokrazia eta legearen nagusitasuna garatzeko eta sendotzeko helburu orokorra eta giza eskubideak zein oinarritzko askatasunak errespetatzeko helburua sustatu beharko ditu". EBren eta Israelen arteko Elkarketa Hitzarmenean, giza eskubideei buruzko klausula esplizitua agertzen da.

Erantzukizunak eskatu behar dizkiegu geure liderrei. Lege-betebeharrak bete ditzatela eta giza eskubideen unibertsaltasuna eta ezargarritasuna errespetatu ditzatela eskatu behar diegu. Giza eskubideak interes politikoen arabera sustatu eta ezartzen badira, nazioarteko zuzenbidea krisian sartuko da. Zuzenbideak nola eskatuko du errespetua, ez-osoia, partziala eta, funtsean, bidegabea bada? Arrazoi on batengatik da justiziaren sinboloa ondo orekatutako balantzak eta begiak estalita daramatzen emakumea.

Giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbidearen benetako helburuetara itzulita, erantzukizunak eskatzea izan beharko litzateke gure helburu nagusia. Lehen aipatu dudanez, giza eskubideak eta legearen nagusitasuna garrantzitsuak izatekotan eta zibilak babestekotan, betearazi egin behar dira ezinbestean.

Sortu zenetik, Giza Eskubideetarako Zentro Palestinarraren (CPDHren) lana sinismen horretan oinarritu da. Justiziaren jazarpenaren bidez lortu nahi dugu giza eskubideen errespetua. Erantzukizunak eskatzen ditugu, eta zigorgabetsunari aurre egiten saiatzen gara. Lan horrek bi helburu nagusi betetzen ditu: lehenengo eta behin, bermatu egiten du biktimen eskubideak defendatu egingo direla (atentzio judizial eraginkorrerako eskubidea eta legearen berdintasunezko babeserako eskubidea, batez ere). Bigarrenez, erantzuleei kontuak emateko eskatu behar zaie, eta disuasioa sustatu beharra dago. Hartara, nazioarteko legea urratuz gero, ikertu, prozesatu, epaitu eta zigortu egingo dituztela jakingo dute.

Sortu zenetik, CPDHk kasuak eraman ditu Israelgo auzitegietara. Israelgo lege-sistema gure lehen helmuga-portua da ezinbestean. Edonola ere, aukera guztien kontrako zenbait garaipen garrantzitsu lortu arren, esperientzia horrek egia soilak irakatsi digu: palestinarrek ez dute Israelgo sistema judizialean justizia lortzerik. Israelgo justizia partziala da, behin eta berriro egiten du porrot nazioarteko estandarretara eta babesetara egokitu behar denean eta okupazioaren lege kanpoko jardunak eta politikak sustatzen ditu.

Horrela, bada, CPDHk jurisdikzio unibertsalaren printzipiora jo du. Jurisdikzio

unibertsala lege-printzipioa da, eta argi eta garbi adierazten du nazioarteko zenbait krimen hain larriak direnez nazioarte osoan dutela eragina. Hain zuzen ere, estatu guztien mesederako da krimen horien erantzuleek kontuak ematea, krimen horiek non egin ziren kontuan hartu gabe. Jurisdikzio unibertsala, beraz, lege-babes handia da, era unibertsean berretsitako Nazioarteko Zigor Gortetik ez dagoen bitartean. Legearen nagusitasuna globo osoan zehar hedatu daitekeela ziurtatzen duten mekanismo urrietakoa da, hain zuzen ere. Agerikoa denez, jurisdikzio unibertsala arlo politikotik kanpo da (gehienetan). Jurisdikzio unibertsalaren erabilerak ondorio politiko adierazgarriak eduki ditzakeen arren, judikatura independenteak erabaki beharreko lege-gaia da. Hartara, oso mekanismo eraginkorra da, eta biktimen eskubideak defendatzeko eta nazioarteko krimenen susmagarriak jazartzeko aukera ematen digu. Nabarmendu egin nahi nuke zenbait krimenetan, Genevako konbentzioen urraketa larrietan eta torturatan estatu guztiak konprometitzen dituen nazioarteko lege-betebeharra izan behar dela jurisdikzio unibertsala erabiltzea.

Zuotako askok ondotoxak dakizueenez, Espainiako gobernuak jurisdikzio unibertsalaren legeak eraldatu berri ditu, eta modu nabarian murriztu du euren irismena eta ezarpena. Arrazoia soil-soila da. Espainiako gobernuak presio politiko handipean jarri zuten (Israelek egin zuen presio handiena), gaur egun jurisdikzio unibertsalaren inguruan auzitegietan dauden zenbait kasuren ondorioz. Espainiako gobernuak Israelen presioaren aurrean makurtzea parodia ikaragarria izan zen mundu zabaleko biktimentzat, eta kalte itzela egin zion Espainiak nazioarteko zuzenbidearen betearazpenean aurretiaz zeukan jarrera ereduagarriari. Ondorioak oso-oso larriak izan dira. Besterik gabe, sufrimenduak, heriotzak, oinazeak eta miseriak bere horretan diraude, nazioarteko krimenak egiten dituztenak zigorgabe geratuko direlako eta barrabaskeriak egiten jarraitzeko adorea emango dietelako. Gaur, Espainian, AEBen, Txinaren, Erresuma Batuen eta Israelen aurkako jurisdikzio unibertsaleko kasuak prozesatzen ari dira, eta munduko estatu boteretsu eta eragingarrietakoak dira. Jurisdikzio unibertsalik ez badago, nola egotziko zaie euren erantzukizuna estatu horiei? Nola ziurtatuko dugu nazioarteko zuzenbidea pertsona guztiei ezartzen zaiela euren gizatasun partekatua eta oinarritzko berdintasunaren arabera.

Oso gai garrantzitsua azpimarratu nahi nuke. Jurisdikzio unibertsalak ondorio politiko ekidinezinak edukiko dituen arren, Israelek Espainiari egindako presioan ikusi ahal izan dugun bezala, presio horren iturria zein den gogoratu behar dugu. Besterik gabe, gerrako kriminal susmagarriak justiziatik babestu nahi dituzten estatuetatik sortzen da. Jurisdikzio unibertsala ezartzeko, estatuek euren ikerketak eta prozesu judizialak eramateko borondaterik edo gaitasunik ez dutela egiaztatzea beharko dute. Estatu horiek, Israelek gerrako kriminalak justizi-

ziatik babesteko ahalegina egin ez balute, ez zen jurisdikzio unibertsala ezarri beharko. Gizarte zibil moduan, giza eskubideei buruz ozen hitz egin eta lege hau indarrrik gabe uzteko eskatu beharko zenuketelakoan nago.

Jurisdikzio unibertsala alde batera utzita, zer egin daiteke?, zer egin behar du Espainiako gobernuak Presidentetza bere gain hartzen duenean? Zorionez, erantzun hori erraza da oso. Goldstone Txosteneko gomendioetan, erantzukizun-mekanismo zehatzak eta erabilgarriak eskaintzen dira, zigorgabetasunari aurre egiteko eta nazioarteko zuzenbidearen nagusitasuna sendotzeko. Gomendio horiek gidari izan behar ditugu. Gure xedek izan behar dira. Datorren urteko martxoan, Espainiako Presidentetzaren erdialdean, NBEko Giza Eskubideen Kontseilua Goldstone Txostenera itzuliko da, Israelen zein Palestinan gomendioak bete diren aztertzeko. Funtsezkoa da EBko frontea indartsua bezain batua izatea. Barne-ikerketa sinesgarriak egin ez bada, UE mugitu egin beharko da, eta Segurtasun Kontseilura zein Nazioarteko zigor Gortera eraman beharko du gaia. Ez dago beste irtenbiderik. Erantzuleak zigorgabe utziz gero, berriro ere nola egongo gara seguru Gazan? Zer mezu bidaliko zaio munduari?

Goldstone Txosteneko gomendioak zuon ekintzen oinarriak izan beharko lirateke. Txalogarriak dira benetan orain arte egin dituzuen ahaleginak eta Espainiako gizarte zibilaren benetako ahalegin harrigarriak. Zuon ekintzak munduarentzako eredia dira, eta eskerrak eman nahi dizkizuet zuon laguntzagatik. Zoritxarrez, gure lana ez da oraindik amaitu, eta geure helburuen, justizia unibertsalaren, duintasunaren nahiz banan-banako eskubideen alde borrokatzen jarraitu behar dugu. Justizia gure alde dagoenez, indarra ematen digu.